



Elgoibarko euskararen AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

LABURPENA

Donostia, 2025eko urriaren 16a

Siadeco^x
ikerketak aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

siadeco@siadeco.eus





Elgoibarko Euskararen azterketa soziolinguistikoa egiteko Siadecok burutu duen lan hau, Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Elgoibarko Izarra Euskaldunon Topagunarekin elkarlanean, egindako eskaeraren ondorioa da.

Azterketa honen helburua da Elgoibarko egoera soziolinguistikoaren inguruko ikerketa burutzea, euskarak herriko gizarte bizitzaren eremu desberdinetan bizi izan duen bilakaera eta egun bizi duen egoera aztertuz.

Ikerketaren txosten osoaren laburpen-dokumentua da hau, emaitza nagusien sintesia egitea duena helburu. Gaikako sei atal ditu:

1. Alderdi metodologikoak
2. Biztanleriaren eta euskararen ezagutzaren bilakaera
3. Euskararen ikasketa eta transmisioa
4. Euskara gizarte bizitzan
5. Euskara udalean
6. Euskara merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-establezimenduetan
7. Euskara enpresetan
8. Ondorioak eta orientabideak

1

Alderdi metodologikoak

Lan hau burutzeko, bi informazio-mota nagusi erabili ditugu: zeharkako informazioa eta zuzeneko informazioa.


1. Zeharkako informazioa

Zeharkako informazioa da Elgoibarko euskararen egoeraren inguruan jada landuta eta jorratuta dauden estatistikak, datuak eta ikerketak.

- ; Elgoibarko Udala. Udal errolda.
- ; EUSTAT. Udalmap.
- ; EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika.
- ; EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.
- ; EAS. Euskararen Adierazle Sistema.
- ; Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila (Lehen HUIS-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).
- ; Elgoibarko Udal Euskaltegia eta Elgoibarko AEK, 2025.
- ; Elgoibarko leku publikoetan euskararen erabilera errealaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa. Siadeco, 1990-1999.
- ; Elgoibar hizkuntza-erabileraren kale-neurketa 2017. Soziolinguistika Klusterra.
- ; Euskararen ezagutza eta erabilera Elgoibarko kirol elkarteetan, 2017

2. Zuzeneko informazio kuantitatiboa jasotzeko teknika: inkesta bidezko datu bilketa

Elgoibarren euskarak bizi duen egoerari buruzko datu kuantitatiboak jasotzeko bost inkestatze-prozesu desberdin burutu dira beste horrenbeste kolektibori zuzenduta:



	Unibertsoa	Erabilitako teknika	Egindako inkesta kopurua
Industria-enpresak	5 langile eta gehiagoko enpresak	Galdetegi elektronikoa	50
Gizarte zerbitzuak	Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduak	Aurrez aurreko galdetegi establezimenduetan	113
Herri elkarteak	Kirola; aisialdia, kultura; euskara; gizarte eta sozioekonomia arloa; bestelakoak (gastronomia, gurasoak...)	Telefono bidezko inkesta eta galdetegi elektronikoa	61
Udal erakundeak eta Musika Eskola	Liburutegia, Gaztelekua, Ludoteka, Kirol Patronatua, Eguneko Zentroa, Musika Eskola	Galdetegi elektronikoa	6
Elgoibarko herritarrak	15 urte eta gehiagoko herritarrak	Telefono bidezko inkesta	629

3. Zuzeneko informazio kualitatiboa jasotzeko teknika: sakoneko elkarrizketa pertsonalak

Elgoibarren euskarak bizi duen egoerari eta izan duen bilakaerari buruzko balorazio, iritzi eta diskurtso kualitatiboetan sakontzeko informatzaile kualifikatuen panel bat definitu da eta panela osatzen duten pertsonak banan banako elkarrizketatu dira. Informatzaile kualifikatuen panel hau Elgoibarko Udalaren eta Elgoibarko Izarraren laguntzaz osatu da.

Elkarrizketa Kopurua	Erakundeak
14 informatzaile kualifikatu	Elgoibarko Institutua, Elgoibarko Ikastola, Elgoibarko Herri Eskola, EHU, IMH, MEKA, IMH campus, Udaleko Euskara Saila, Elgoibarko Izarra, Udal Euskaltegia, AEK Euskaltegia, EMUN, Danobat.


2

Biztanleriaren eta euskararen ezagutzaren bilakaera

Hazi eta gaztetu egin da Elgoibarko biztanleria, migrazio-fluxuen eraginez

- **Biztanleria-hazkundera izan du Elgoibarrek azken hogeit hamar urtean, nagusiki, migrazio-fluxuen eraginez.** Adinekoen pisua inguruko lurralde-eremuetan baino gutxiago areagotu da, haur eta gazteena gehiago, atzerrian jaiotakoena modu esanguratsuan handitu da eta Espainiako estatuko beste lurraldeetan jaiotakoena murriztu. Hala ere, ikuspegi zabalagoa hartuz, 1991 urteko datuekiko, antzeko biztanle-kopurua du Elgoibarrek. Baina, adinari dagokionez, nabarmen zaharragoa.
- **1991n, Elgoibarko biztanleen % 24,0 zen Euskal Herritik kanpo jaioa. Baina, gehienbat, Espainiako estatuan jaiotako biztanleak ziren horiek** —gaur egun, % 13,2—. Estatutik kanpoko migrazioak ez zuen inpakturik, oraindik. Gaur egun Euskal Herritik kanpo jaiotakoak % 30,6 dira eta horietatik % 17,4 atzerrian jaio dira.

1. grafikoa. Elgoibarko biztanleriaren bilakaera (1991-2024).



Iturria: Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2024ko urtarrilaren 1ean.

1. taula. Adierazle soziodemografikoak

	Urtea	Elgoibar	Debarrena	Gipuzkoa	EAE
Biztanleriaren urte arteko aldakuntza (%)	2024	0,9	0,43	0,40	0,51
Biztanleriaren aldakuntza azken hamarkadan (%)	2024	1,18	-0,39	2,00	1,61
Haur indizea: 0-14 urteko biztanleria (%)	2024	14,22	13,45	12,99	12,60
Zahartze-indizea. 65 urteko eta gehiagoko biztanleria (%)	2024	23,58	24,83	23,82	23,95
Gainzahartze indizea. 75 urteko eta gehiagoko biztanleria (%)	2024	12,14	12,78	12,18	12,17

Iturria: Udalmap

2. taula. Elgoibarko 15 urtetik gorako herritarrak, jaiolekuaren arabera (2024)(%)


		JAIOLEKUA					Guztira	ATZERRITARRAK %
		Elgoibar	Hego EH (Gipuzkoa barne)	Espainia	Atzerritarrak Gaztel. hiztunak	Atzerritarrak Ez gaztel. hiztunak		
Adin-tartea	15-29 urte	62,1	10,3	3,4	14,4	9,8	100,0	24,24
	30-45 urte	36,2	23,8	4,2	19,1	16,5	100,0	35,68
	46-64 urte	48,8	29,6	7,8	6,8	7,0	100,0	13,77
	>= 65 urte	35,7	28,2	32,5	1,3	2,3	100,0	3,62
	Guztira	44,9	24,5	13,2	9,2	8,2	100,0	17,41
Sexua	Emak	43,8	25,2	13,5	10,8	6,6	100,0	17,46
	Gizon	46,0	23,8	12,8	7,6	9,8	100,0	17,34
	Guztira	44,9	24,5	13,2	9,2	8,2	100,0	17,41

Iturria: Elgoibarko Udala. Udat errolda.

Adinekoen eta guraso izateko garaian dauden multzoak erdaldundu dira gehien

- **Euskararen ezagutza egonkor mantendu da, orokorrean,** baina bi joera nabarmen antzematen dira: 45 urtetik beherakoen artean areagotu egin da ezagutza eta 65 urtetik gorakoaren artean murriztu. Orokorrean, hamarretik seik badakite euskaraz Elgoibarren, erdiek baino gehiagok oso ondo.
- **Gazteek dute euskararen ezagutza-mailarik altuena, gaur egun:** hamarretik ia zazpik dakite oso ondo euskaraz, 15-29 urtekoen artean.
- **Adinekoen artean, gaur egun, badago euskaraz ez dakiten, euskararekin identifikatzen ez diren edo jakin arren erabiltzen ez dutenen multzo handi bat.** Biztanleria-segmentu horretan, estatuko beste lurraldeetan jaiotakoaren pisua handia da (% 32,5) eta emakumezkoak gehiago dira.
- **Baina, euskararen ezagutza-mailarik baxuena 30-44 urtekoek dute.** Atzerrian jaiotakoaren pisua da adin-tarte horretan nabarmentzen dena (% 35,7). Aintzat hartu behar da ugalkortasun-adinean dagoen biztanle-multzoa dela, gainera. Horrek ondorengo belaunaldiei begira duen eraginarekin.

2. grafikoa. Elgoibarko herritarrek (>=2 urte) euskara-mailaren arabera. Bilakaera (1991-2021).



3. taula. Euskararen ezagutza, generoaren eta adinaren arabera (%).

	Generoa		Adina				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizonezkoa	15-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 eta gehiago	
Bai, euskaraz oso ondo hitz egiteko gai naiz	50,5	52,1	69,1	47,4	53,0	51,3	51,3
Bai, euskaraz nahiko ondo hitz egiteko gai naiz	8,1	9,4	2,6	9,0	9,9	8,7	8,7
Ulertu egiten dut, baina hitz egin ez	14,0	11,4	9,2	8,9	15,7	12,7	12,7
Oso gutxi edo ezer ez dut ulertzen	27,4	27,1	19,0	34,8	21,4	27,3	27,3
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

3

Euskararen ikasketa eta transmisioa

D ereduak haur eta gazteen euskalduntzean izan duen eragina agerikoa da

- **Gaur egun, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskaintza guztia D eredukoa da.** A eta B ereduak duten presentzia Lanbide Heziketara mugatzean da. Eta azken horretan ikasle kopurua handia bada ere, kontuan hartu behar da horietako gehien-gehienak ez direla elgoibartarrak
- **15-29 urte artekoen, euskararen ezagutza-maila handienekoen hamarretik zazpik D ereduan ikasi dute.** Adin-tarte horretatik gora, gero eta baxuagoa da hizkuntza-eredu horretan ikasi dutenen pisua.
- **Ikastetxeen arteko lehia edo eztabaida da hobetu beharrekoen eremuko alderdia.** Batez ere, etorri berriak diren ikasleen banaketa dela eta. Alde horretatik, oso zabaldua dagoen pertzepzioa da segregazio-arazo bat dagoela Elgoibarren.
- **Pertzepzioa da ikastetxeetan euskararen erabilera ikasleen artean jaitsi egin dela azken urteotan.** Gaztelaniarako joera aurreratzuz joan dela ikastetxeetako ikasleen artean: lehen gaztelaniarako joerak DBHn hasten zirela era orain joera horiek aurreratu egin direla: HHn eta LHn ere ikusten direla.
- **Ikasgeletan aniztasun kulturala asko hazi da eta hori behar bezala kudeatzeko baliabide nahikorik ez dute ikastetxeek.** Ikasgeletako ikasleen proportzio handi bat etorkinen seme-alabek osatzen dutenean, oso zaila da kalitatezko euskararen transmisioa bermatzea. Baita kalitatezko hezkuntza bat bermatzea ere.

4. taula. Hizkuntza-ereduak, ikasmilaren arabera (2023/2024 ikasturtea).

	Haur Hezkuntza	Lehen Mailako Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren hezkuntza	Batxilergoa	Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa	Zereginen Ikasketa	Guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
A eredua	-	-	-	-	90	-	90	2,9
B eredua	-	-	-	-	6	-	6	0,2
D eredua	399	720	667	332	890	9	3.017	96,9
Guztira	399	720	667	332	986	9	3.113	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza Saila (Lehen HUIS).

5. taula. Ikasle garaian (16 urte bete arte), zein irakaskuntza-eredutan ikasi zuten (erabat/nagusiki) (%)


	Generoa		Adina				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ahozko gaitasun erlatiboa					Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	15-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 eta gehiago	Euskaraz erosoago	Bietan berdin	Gaztelaniaz/ beste hizkuntza batean erosoago	Euskaraz hitz egiteko gai da	Ez du euskaraz hitz egiten	
A ereduan	11,1	8,6	0,0	9,1	23,6	0,5	6,2	12,9	13,5	10,1	9,6	9,9
B ereduan	4,8	2,8	4,7	8,4	3,0	0,7	2,4	7,0	7,7	5,1	1,9	3,8
D ereduan	28,3	35,1	70,8	40,1	31,5	0,4	60,5	52,8	31,0	51,9	1,6	31,7
Dena gaztelaniaz	52,4	42,0	15,0	31,2	35,9	93,4	27,6	26,0	43,8	30,2	72,5	47,3
Beste hizkuntza batean	3,3	10,9	9,5	11,3	5,4	4,1	2,3	0,7	4,1	2,1	14,5	7,0
Ed/Ee	0,2	0,5	0,0	0,0	0,4	0,8	1,0	0,5	0,0	0,6	0,0	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

Euskara ikasteko interesa txikia da helduen artean, eta beharrik ez dute sentitzen —edo beste lehentasun batzuk dituzte—, euskaraz ez dakitenen erdiek


- **Helduen artean euskara ikasteko interesa ez da handia**, orokorrean. Hala ere, etorri berrien artean handiagoa da. Horrekin lotuta, neurri batean, A1 mailan modu nabarmenean aragoitu da herriko euskaltegiako matrikulazio-maila.
 - 1991n azpimarratzen zen ikasle kopuru nagusia oinarrizko mailatan pilatzen zela. Eta oinarrizko mailetatik gora hain jende gutxik ikastea “kezkarria” zela. Jendeak erdipurdi ikasi eta utzi egiten zuela: “nahikoa ikasi dutelakoan”. Hain zuzen ere, gaur egun, elgoibartarren % 27,6 inoiz Euskaltegian euskara ikasten ibilitakoa da, baina ez daki ondo euskaraz.
- **Gaur egun euskaltegi, barnetegi, hizkuntza-eskola eta abarretan matrikulatuta ez dauden artean erdiek baino gehiagok euskararen beharrik ez sentitzea edo premia handiagoak edukitzea** nabarmendu dituzte euskara ikastera ez animatzeko arrazoen artean.
 - Baina, arrazoi nagusia, denbora-falta da. Eta denbora-faltak eta baita kontziliazio-arazoez ere, indar handiagoa hartzen dute emakumezkoen eta 30-44 urtekoen artean, zaintza-lanekiko lotura estua iradokiz.
- **Garai batean ikasle talde homogeenagoak osatzeko aukera zegoen, gaur egun taldeak osatzea zailagoa da eta talde heterogeenagoak sortzen dira.** Horrek irakasleen lana zailtzen du eta ikasleei tratamendu pertsonalatuagoa ematea exijitzen die. Bestalde, ikastaro trinkoak baino, ordu gutxiko moduluak eskatzen dira gaur egun, lehen ez bezala.

3. grafikoa. Euskara ikasteko euskalategi, barnetegi, hizkuntza-eskola...batean matrikulatutakoak (%)



Iturria: Siadeco, 2025

4. grafikoa. Euskalategi, barnetegi, hizkuntza-eskola eta abarretan matrikulatuta ez daudenen arrazoiak (% 53, badagokienak soilik) (garrantzi oso handia + nahiko handia)(%).




Iturria: Siadeco, 2025

Euskara tokia galtzen ari da familiako-etxeko eremuan, transmisioan eta erabileran


- **1991n, inkestatuen % 50,0en lehen hizkuntza zen euskara, eta % 3,7rena biak, euskara eta gaztelania. % 43,9rena, gaztelania bakarrik.**
Gaztelania bakarrik jaso dutenen ehunekoa ia bere horretan mantendu da. Baina **zabaldu den joera da gero eta biztanle gutxiagok jasotzea euskara bakarrik (%40,6k) eta gero eta gehiagok biak, euskara eta gaztelania (%9,2).**
- Elgoibarko **etxeetako euskararen erabilerak behera egin du, 1991ko datuekin alderatuta: % 36,5ek** egiten zuen orduan euskaraz eta % 15,1ek bietara. Gaur egun, nagusiki euskaraz egiten dutenak %27,5 dira eta **bietara egiten dutenak hazi egin dira: %19,2.**
- **Bi bikotekide euskaldunen pisua %35,5ekoa da eta 45-64 urtekoen artean nabarmentzen da** (% 42,4). Bi bikotekide erdaldunena, 65 urtetik gorakoetan (% 26,7), baina baita 30-44koetan ere (% 25,0).
- **Bostetik bik beti edo ia beti gaztelaniaz egiten du bikotekidearekin (% 39,7).** Horien pisua 30-44 urtekoen artean nabarmentzen da (% 45,0).
- **Gurasoetako bat euskalduna (eta bestea ez) duen bost elgoibartarretik batek ez du batere euskararik jasotzen etxean.**
- **Eta bi bikotekideak euskaldun izanik, hamarretik hiruk nagusiki erdaraz edo erdaraz euskaraz beste egiten dute etxean.**
- **Gaztelaniaz erosoago hitz egiten duten bikote euskaldunen familia bidezko transmisioa mugatuago/ahulagoa da:** umeei oinarrizko hizkuntza baliabideak transmititzen dizkiete eta erabilera hasierako urteetara mugatzen da: koskortzen hasten direnean gaztelania nagusitzen da baita haurrekin ere.
- Teknologia **digitalen bidez edukien ekoizpen eta kontsumoan gertatzen ari den etengabeko hazkundea eragin handia izaten ari da ume eta gazteengan:** eremu horretan gaztelaniak eta ingelesak gero eta indar eta eragin handiagoa dute euskarekin alderatuta.

5. grafikoa. Haurtzaroan ikasitako lehen hizkuntza (%).




Iturria: Siadeco, 2025.

6. grafikoa. Elgoibarko biztanleria etxean erabilitako hizkuntzaren arabera. Bilakaera (1991-2021) (%).




Iturria: Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2024ko urtarrilaren 1ean.

7. grafikoa. Seme-alabek etxean ikasitako lehen hizkuntza (3 urte bete arte), bikotekideen euskara-gaitasunaren arabera (% 65,7, seme-alabaren bat dutenak soilik) (%)



Iturria: Siadeco, 2025

8. grafikoa. Hizkuntza-erabilera bikotekidearekin (bikotekidea dutenak eta hizkuntza-gaitasuna adierazi dutenak: % 73) (%)



Iturria: Siadeco, 2025

4 Euskara gizarte-bizitzan

Gazteenek eta euskaraz erosoago moldatzen direnek erabiltzen dute euskara gehien, baina haiek dira ezkorrenak edo kritikoak

- **Bostetik bat pasatxo aritzen da beti edo gehienbat euskaraz, eguneroko bizitzan** (% 22,5). Eguneroko erabileran ere, gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Eta adinekoak, gutxien erabiltzen dutenak.
- **Adinarekin batera, gaitasun erlatiboa da erabileran gehien eragiten duen aldagaia:** euskaraz erosoago moldatzen direnek hizkuntza erabiltzeko joera handiagoa dute.
- **Gazteak eta euskaraz hobeto moldatzen direnak ezkorragoak dira** euskararen bilakaerari eta etorkizuneko aurreikuspenei dagokionez. Adinekoak eta erdaldunak, baikorragoak.
- **Oso zabaldua dagoen pertzepzioa da haur eta gazteek gaztelaniarako joera dutela.** Baina jaso da, baita ere, gurasoek ez dietela euskaraz egiten. Eta adinekoek euskara gutxi erabiltzen dutela ere bai.

6. taula. Eguneroko bizimoduko hizkuntza-erabilera

	Generoa		Adina				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ahozko gaitasun erlatiboa					
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	15-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 eta gehiago	Euskaraz erosoago	Bietan berdin	Gaztelaniaz/beste hizkuntza batean erosoago	Euskaraz hitz egiteko gai da	Ez du euskaraz hitz egiten	Guztira
(la) beti gaztelaniaz	38,6	35,1	27,1	41,4	38,5	37,9	15,9	7,1	13,0	12,1	74,2	36,9
Gaztelaniaz gehiago	16,7	20,4	24,0	9,7	14,2	26,9	4,8	12,6	51,3	16,7	21,6	18,6
Euskaraz eta gaztelaniaz maila berean	18,3	23,0	16,2	23,8	21,8	19,7	19,8	51,2	32,4	33,9	,3	20,6
Euskaraz gehiago	15,3	12,4	21,3	14,0	13,5	9,6	32,4	22,8	2,1	23,0	,2	13,9
(la) beti euskaraz	10,2	6,9	8,3	8,1	11,2	5,9	27,0	6,4	1,2	14,4	0,0	8,6
Besterik (euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean)	,8	2,2	3,1	3,0	,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,7	1,5
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

7. taula. Euskararen ahozko eta idatzizko erabileraren azken 10 urteetako bilakaera Elgoibarren: herritarren balorazioak (%)

	Generoa		Adina				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ahozko: gaitasun erlatiboa					
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	15-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 eta gehiago	Euskaraz erosoago	Bietan berdin	Gaztelaniaz/beste hizkuntza batean erosoago	Euskaraz hitz egiteko gai da	Ez du euskaraz hitz egiten	Guztira
Handitu egin da	26,9	27,2	9,4	13,1	29,7	45,7	14,9	21,9	36,4	21,7	35,4	27,0
Berdin mantendu da	30,8	29,8	20,4	36,0	30,7	31,9	28,2	37,4	30,2	32,0	27,3	30,3
Gutxitu egin da	25,4	25,6	42,0	23,1	26,9	14,9	49,7	33,6	19,3	37,9	7,4	25,5
Ed/Ee	17,0	17,4	28,2	27,8	12,7	7,5	7,1	7,1	14,1	8,5	29,9	17,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

8. taula. Datozen 5 urteetarako aurreikuspena, euskararen ahozko eta idatzizko erabilerari dagokionez

	Generoa		Adina				Euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta ahozko gaitasun erlatiboa					
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	15-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 eta gehiago	Euskaraz erosoago	Bietan berdin	Gaztelaniaz/beste hizkuntza batean erosoago	Euskaraz hitz egiteko gai da	Ez du euskaraz hitz egiten	Guztira
Handitu egingo da	27,1	27,7	21,8	22,4	27,9	34,1	19,0	23,9	27,4	22,4	35,1	27,4
Berdin mantenduko da	37,8	42,0	32,0	49,0	37,3	41,2	40,8	43,2	44,6	42,4	35,3	39,9
Gutxitu egingo da	16,8	17,2	24,1	11,4	22,0	10,6	31,2	22,1	12,7	24,2	6,4	17,0
Ed/Ee	18,4	13,1	22,1	17,2	12,9	14,1	9,1	10,9	15,3	10,9	23,2	15,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

Kultur ekintza eta jardueretan eta udalean egin du gora erabilerak; behera ikastetxe inguruetan, lagunartean eta ostalaritzan


- **Maila kualitatiboan jasotako informazioaren arabera, euskararen erabilerak ondorengo eremuetan egin du gora, neurri handienez:** kultur ekintza eta jardueretan eta udaletxean eta udal zerbitzuetan.
 - Udal zerbitzuetan batez ere euskara erabiltzen du inkestatuen % 48k.**
- **Aldiz, euskararen erabilerak ondorengo eremuetan egin du behera, neurri handienez:** ikastetxeetako patioan eta inguruan, gelatik kanpo; lagunartean eta kuadrilletan: %22 ingurukoa da eremu horietan nagusiki euskara erabiltzen duten inkestatuen proportzioa.
 - Esparru informala, orokorrean hartuta, nagusiki gaztelaniaz egiten dutenen pisua adinekoen artean nabarmentzen da gehien. Berriz, 15-29 urtekoen ia laurdenek beti edo gehienetan euskaraz egiten dute aisialdian.
- **Eremu ez formalak eta ez arautuak dira lehentasunezko ikusten direnak datozen urteetako sustapen-ildoei dagokienez:** lagunartea eta kuadrillak, ikastetxeetako patioak eta inguruak eta Elgoibarko familiak.
- **Migrazio-mugimenduen eta etorri berrien gaiari heldu beharra jaso da, hain zuzen ere.** Eremu jakinetan inpaktu berezia duela adierazi dute inkestatuek: ostalaritzan edo guraso berrien artean, adibidez. Besteak beste, euskara integrazteko bide gisa aurkeztea jaso da, euskara ikasteko aukera eta baliabideen berri ematea edo ostalaritzako langileak euskalduntzeko programa espezifikoak.

9. taula. Eguneroko harreman eta egoeretan Elgoibarren gehien erabiltzen duten hizkuntza (harreman- mota bakoitza badutenak soilik, badagokienak)

	Etxean/ Familiar %	Lagunar- tean/ kuadrillan %	Lantokian %	Ikastetxe/ formazio zentroan %	Aisi- aldian %	Herriko denda/ tabernetan %	Finantza erakun- deetan %	Osasun zerbi- tzueta %	Udal zerbi- tzueta %	Ezeza- gunekin %
(la) beti gaztelaniaz	39,3	40,1	34,4	47,2	38,7	36,7	42,3	39,0	37,9	39,9
Gaztelaniaz gehiago	10,7	14,7	10,1	7,5	11,2	8,0	9,9	9,1	6,6	12,7
Euskaraz eta gaztelaniaz maila berean	12,6	20,2	20,8	6,7	19,4	15,9	10,3	11,0	6,2	12,4
Euskaraz gehiago	7,5	8,9	11,7	5,4	13,1	22,4	16,5	16,2	16,0	17,7
(la) beti euskaraz	26,1	13,6	21,9	17,4	15,2	16,0	20,5	24,2	31,9	15,7
Besterik (euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean)	3,6	2,2	0,0	3,1	1,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	0,2	0,3	1,1	12,8	1,4	0,9	0,6	0,5	1,3	1,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

9. grafikoa. Datozen urteetan zein hiru eremuri eman lehentasuna, Elgoibarren euskara sustatzeko (%)



Iturria: Siadeco, 2025

Alfabetatze-maila apalak eta bertako euskalkiaren galera progresiboak gabeziak dakarzkie helduei eta gazteei, hurrenez hurren

- **Euskaraz alfabetatuta ez dauden adinekoen kasuan, batez ere,** zailtasunak dituzte euskara batua edo estandarra ondo ulertzeko. Horregatik kostatzen zaie, besteak beste, “Barren” hedabidearekin konektatzea. Elebitan argitaratu dadin eskatu du batek baino gehiagok.
- **Elgoibarko euskalkiaren aldaera pixkanaka desagertzen ari dela ohartarazi dute.** Eta horrek gazteen baliabide-faltan eta erdarara jotzeko joeran eragiten duela, erregistro informalaren testuinguruan.


Euskararen alde posizionatuta ez daudenak erakartzeko estrategia berrien beharra

- **Euskararen alde posizionatuta ez dauden herritarrek erakarri eta euskararen alde jar daitezzen nahi izanez gero, euskalgintzak egun darabilen estrategia edo eredia egokitu edo aldatu beharra aipatzen da** eta kolektibo honi euskararen gaia erdigunean jartzeko eskatzeak, euren egoera eta beharrak kontuan hartu gabe eta horiekin uztartu gabe, nekez erakarriko dituela; aitzitik, urruntze bat eragiteko arrisku handia dagoela ikusten da.
- **Etorrinen euskal kultura eta euskararen aldeko jarrerak lantzerakoan**, kulturartekotasunean oinarritzea funtsezkoa dela aipatzen da, ondorengo ardatzak aintzat hartuz:
 - Etorritakoen kulturaren aitortza: ezagutu, begirunea erakutsi, balioa eman, zuzeneko harremanetarako espazioak.
 - Aukera berdintasuna bermatu, ekitatea: bertakoei ematen zaizkien aukera berberak eskaintzen zaizkiela ziurtatu.
- **Gutxiengoa direla kontsideratzen bada ere, badaude euskara sustatzeko aplikatzen diren politika eta irizpideen kontrako jarrera agertzen duten diskurtsoak:** euskara ikasi “beharra” kanpotik sentitu dutenak eta “sufritu” dutenak; “inposizioa” aipatzen dutenak.

Erreferentzialtasuna lortu du “Barren” hedabideak tokikoan, baina irratia da nagusi euskarazko hedabide orokorren artean

- **Hamar inkestatutik zortzik erabiltzen du Barren, paperean nahiz online, tokiko informazioa jasotzeko.** Lautik batek, gainera, baieztatu du bere tokiko informazio-iturri nagusia dela. Informazio-iturri nagusi dutenen pisua altuagoa da gazteenen eta euskaraz erosoago moldatzen direnen artean.
- **Barren.eus bertsio digitala oso ondo baloratzen da, irudia eta gertutasuna, bideoak geroz eta gehiago lantzen dituelako** eta gaurkotasuna jorratzen duelako albisteetan.
 - Gazteenen artean, aldizkariaren euskarri digitalak geroz eta indar handiagoa hartzen ari dela uste da.
 - Adinekoen artean, aldizkariaren paperezko bertsioak ditu jarraitzaile asko.
 - Hobetzeko bi alderdi ere jaso dira: letra txikiegia dela eta baserrietara berandu iristen dela.
- **Komunikabideen, kulturaren eta baliabide digitalen hizkuntza-erabilerari dagokionez**, euskararen **erabilera handieneko** (euskaraz beste hizkuntzetan baino gehiago) eremuak dira: irratia edo podcastak entzun (% 28,5) eta antzerkiak ikusi (% 27,6). Hurrengo mailan daude musika entzun (% 17) eta mezularitza aplikazioak erabili (% 16,3). Beste muturrean, liburuak irakurri (% 4,4) eta interneten ibili (% 4).

10. grafikoa. Barren hedabidearen erabilera tokiko informazioa jasotzeko (%)



Iturria: Siadeco, 2025

10. taula. Komunikabideen, kulturaren eta baliabide digitalen erabileran gehien erabiltzen duten hizkuntza (harreman mota bakoitza badutenak soilik, badagokienak)

Harreman-mota bakoitza dutenak %	Telebista edo ikus-entzunez koak ikusi %	Irratia edo podcastak entzun %	Egunkari edo aldizkariak irakurri %	Liburuak irakurri %	Musika entzun %	Antzerkiak ikusi %	Interneten ibili %	Mezularitza-aplikazioak erabili %	Sare sozialak erabili %
(la) beti gaztelaniaz	43,8	39,5	49,2	55,2	17,7	25,4	60,6	40,7	50,2
Gaztelaniaz gehiago	25,1	11,5	18,2	20,5	6,7	5,7	20,0	8,5	14,2
Euskaraz eta gaztelaniaz maila berean	18,0	14,6	14,6	12,4	24,4	22,5	6,0	27,7	9,9
Euskaraz gehiago	4,2	12,5	6,0	3,1	11,2	16,1	2,8	12,1	5,1
(la) beti euskaraz	0,8	16,0	4,8	1,1	3,0	11,5	0,8	4,2	2,4
Beste hizkuntza bat	0,8	1,7	1,4	1,0	6,2	1,9	0,5	0,5	2,7
Hiru hizkuntza maila berean	1,9	1,3	0,2	0,9	15,7	3,4	2,0	0,8	1,4
Euskaraz gehiago beste hizkuntzan baino	0,1	0,0	0,0	0,2	2,8	0,0	0,4	0,0	0,0
Euskaraz eta beste hizkuntzan maila berean	0,2	0,0	0,0	0,3	2,8	0,0	0,1	0,0	0,0
Gaztelaniaz eta beste hizkuntzan	4,6	1,3	1,6	3,0	8,1	2,6	4,4	3,3	5,3
Ed/Ee	0,5	1,6	4,0	2,1	1,5	11,0	2,4	2,2	8,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2025



Herri elkarteak: hobetu beharrekoen eremuan jarraitzen dute kirolak eta aisialdiak

- Elgoibarko elkarteetako **zuzendaritza kideen (%77,1) eta parte hartzaileen (%68,1) erdia baino gehiago euskaraz ondo hitz egiteko gai** da. Langile **boluntarioen artean proportzioa %48ra jaisten** da.
- **Gizarte arlokoen, sozioekonomia arlokoen eta auzo elkarten multzoan bereziki baxua da euskararen ezagutza**, langile/boluntario eta parte hartzaile edo erabiltzaileen artean. Azken urteetan behera egin duela adierazi dute, gainera. Nahiz eta gora egin duen euskarari ematen zaion garrantziak, arlo horietan guztietan.
- **Gaur egun Elgoibarko elkarten jardueren % 57,4tan egiten da gehienbat euskaraz.** Elgoibarko Izarra euskara elkarteak alde batera utzita, kultura arloko elkarteek dute euskararen ezagutza- eta erabilera-mailarik handiena.
- **Kirolean eta aisialdian, bilakaera positiboa den arren, ohikoa da gaztelaniaren erabilera**, batez ere, futbolearen eta atletismoan. Eskubaloian aurreko bietan baino euskaraz gehiago egiten bada ere, pertzepzioa da gaztelaniaren erabilera areagotu egin dela. Kirolean, erabiltzaile edo parte hartzaile euskaldunen proportzio handieneko eremuan, hain zuzen, % 37,6ra jaisten da jardueretan gehienbat euskaraz egiten dutenen ehunekoa.
 - Kirola eta aisialdia arloetako elkarten % 43,8tan ez dute jendarean jartzen diren ohar eta karteletako testuak euskarara itzultzeko edo euskaraz idatzita daudenak zuzentzeko Elgoibarko Udalak eskaintzen duen doako zerbitzua ezagutzen.
- **Kirola eta aisialdia arloetako elkarten erdiek uste dute euskararen erabilera egungoa baino handiagoa izan daitekeela** haien jardueretan. Langile/boluntarioen euskararen ezagutza-maila apala azpimarratu dute, batez ere, arrazoi gisa.
 - Nabarmentzeko modukoa da kirola eta aisialdia arloko elkarten % 31k, begirale, entrenatzaile nahiz bestelako dinamizatzaileak kontratatzerakoan, ez duela euskararen ezagutza kontuan hartzen.
- **Elkarteetan lan egiteko edo modu boluntarioan aritzeko —begiraleak, entrenatzaileak, irakasleak etab.— euskal hiztunak lortzeko zailtasuna aipatu dute**, elkarteetako informatzaileek, euskarak elkarteetan izan duen bilakaerarekin lotutako faktore nagusien artean.

11. taula. Zenbat diren elkarteko zuzendaritza osatzen duten pertsonak, eta nola banatzen diren euskararen ezagutza-mailaren arabera.

	Zein da elkartearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkarte		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak	57	67,9	85	86,7	62	71,3	66	81,5	270	77,1
Euskara ulertzen dutenak (nekez hitz egin)	15	17,9	4	4,1	18	20,7	7	8,6	44	12,6
Euskara ulertu ere egiten ez dutenak	12	14,3	6	6,1	7	8,0	8	9,9	33	9,4
Ed/Ee	0	0,0	3	3,1	0	0,0	0	0,0	3	0,9
Zuzendaritzako kide kopurua GUZTIRA	84	100,0	98	100,0	87	100,0	81	100,0	350	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

12. taula. Elkarteko langile edo boluntario-kopurua (begiraleak, entrenatzaileak, dinamizatzaileak...) eta nola banatzen diren euskararen ezagutza-mailaren arabera¹.

	Zein da elkartearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkarte		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak	188	77,0	233	94,0	460	39,9	135	28,4	1.015	48,0
Euskara ulertzen dutenak (nekez hitz egin)	41	16,9	13	5,2	207	18,0	295	62,2	556	26,3
Euskara ulertu ere egiten ez dutenak	15	6,1	2	0,8	476	41,3	45	9,4	537	25,4
Ed/Ee	0	0,0	0	0,0	8	0,7	0	0,0	8	0,4
Guztira	244	100,0	248	100,0	1.151	100,0	474	100,0	2.117	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

13. taula. Elkartearen jardueretako ohiko parte hartzaile edo erabiltzaileak nola banatzen diren euskararen ezagutza-mailaren arabera

	Zein da elkartearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkarte		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Euskaraz ondo hitz egiteko gai dira	1085	82,5	999	81,3	461	39,2	457	68,5	3.002	68,4
Euskara ulertzen dute (nekez hitz egin)	135	10,3	148	12,0	346	29,4	83	12,4	712	16,2
Euskara ulertu ere ez dute egiten	50	3,8	82	6,7	370	31,4	90	13,5	592	13,5
Ed/Ee	45	3,4	0	0,0	0	0,0	37	5,5	82	1,9
Guztira	1.315	100,0	1.229	100,0	1.177	100,0	667	100,0	4.388	100,0

¹ 56 elkarteri dagokie informazioa. Gainerako 6 kasutan figura honek ez du zentzurik, edo ez dugu informaziorik lortu.

14. taula. Ohiko hizkuntza-erabilera elkarrearen jardueretan

	Zein da elkarrearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkartea		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Dena edo ia dena euskaraz	3	18,8	11	57,9	5	29,4	4	44,4	23	37,7
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	18,8	5	26,3	3	17,6	1	11,1	12	19,7
Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	3	18,8	2	10,5	3	17,6	3	33,3	11	18,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5	31,3	0	0,0	4	23,5	0	0,0	9	14,8
Dena edo ia dena gaztelaniaz	2	12,5	1	5,3	2	11,8	1	11,1	6	9,8
Ed/Ee	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
GUZTIRA	16	100,0	19	100,0	17	100,0	9	100,0	61	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

15. taula. Elkarrearen jardueretako euskararen erabilera-maila oraingoa baino altuagoa izan daitekeela uste duten edo ez

	Zein da elkarrearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkartea		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Bai	8	50,0	6	31,6	7	41,2	3	33,3	24	39,3
Ez	5	31,3	13	68,4	10	58,8	4	44,4	32	52,5
Ed/Ee	3	18,8	0	0,0	0	0,0	2	22,2	5	8,2
GUZTIRA	16	100,0	19	100,0	17	100,0	9	100,0	61	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

16. taula. Elkarterako begirale, entrenatzaile nahiz bestelako dinamizatzaileak aukeratzekoan zenbaterainoko garrantzia ematen zaion euskaraz ondo hitz egiteari

	Zein da elkarrearen esparru nagusia?									
	Kirola (nagusiki) eta aisialdia		Kultura eta euskara		Gizarte taldea, sozioekonomia arlokoa, auzo elkartea		Bestelakoak (gastronomia elk., guraso elk., eta erakunde publikoen mendekoa)		GUZTIRA	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Oso handia: ezinbestekoa da	1	6,3	6	31,6	4	23,5	3	33,3	14	23,0
Nahiko handia: ez da ezinbestekoa baina asko baloratzen da	7	43,8	6	31,6	2	11,8	1	11,1	16	26,2
Nahiko txikia: baloratzen da baina beste alderdi batzuk baino gutxiago	2	12,5	1	5,3	1	5,9	0	0,0	4	6,6
Oso txikia: ez zaio aparteko garrantzirik ematen	5	31,3	4	21,1	3	17,6	1	11,1	13	21,3
Ed/Ee	1	6,3	2	10,5	7	41,2	4	44,4	14	23,0
GUZTIRA	16	100,0	19	100,0	17	100,0	9	100,0	61	100,0

Iturria: Siadeco, 2025


Udalaren eskolaz kanpokoan eskaintzaren eta musika-arloaren bilakaera oso positiboa da

- **Udalak ume eta gazteei begira antolatu eta babestutako eskola orduz kanpoko kirol egitasmoetan ere asko aurreratu da eta gaur egun euskararen erabilera bermatuta dago**
Udalaren eskaintzan: Eskola Kirola edo Kirol udalekuetan esaterako.
- **Musikaren inguruan eratutako talde eta elkarteek eragin handia dute Elgoibarren. Pertzepzioa da eremu horretan ere, bilakaera positiboa izan dela:** euskararen aldeko urratsak eman direla, neurri batean, Udalaren eta Elgoibarko Izarra elkartearen laguntzaz.

Elgoibarko Izarraren balorazioa oso positiboa da ezagutzen dutenen artean, baina elkartearen ezezagutza-maila handia da erdaldunen artean

- **Hamarretik seik adierazi dute Elgoibarko Izarrak herrian egiten duen lana oso edo nahiko eraginkorra dela.** Elgoibarko Izarrak urte hauetan egin duen lana eta Euskal Herrian euskara elkartearen erreferente izatera iritsi izana nabarmentzen da. Udalarekin eta herriko beste elkarteekin elkarlanean herrigintzan eta euskalgintzan egindako lana goraiatzen da.
- **Elgoibarko Izarrari buruz gehien azpimarratzen dena da Atxutxiamaika bezalako taldeen bidez ume eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdi eskaintza** zabaltzeko eta eremu horretan euskararen erabilera sustatzeko egin duen lana.
- **Inkestatuen herenek baino gehiagok ez dakite Elgoibarko Izarrak zer egiten duen (% 35,9).** Ehuneko hori nabarmen altuagoa da euskaraz ez dakitenen artean eta adin-tarterik erdaldunenetan: 30-44koen artean eta 65etik gorakoen artean.

11. grafikoa. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen lanaren balorazioa (%).



Iturria: Siadeco, 2025

5 Euskara udalean

Euskararen egoerak modu nabarmenean egin du hobera Elgoibarko Udalean

- **Elgoibarko Udalean euskararen egoerak hobera egin du, modu nabarmenean:** batez ere, langileen euskara-gaitasunari dagokionez (ia denak euskaldunak dira) eta erabilerari dagokionez ere bai, baina maila apalagoan. Horrez gain, hautematen da Udalak euskarari garrantzi handia ematen diola bere jardunean.
- **Elgoibarko Udalaren VII.plangintzaldirako Erabilera Planean jasota dagoen informazioaren arabera, dagokion derrigortasun-indizearen gaintik dago Elgoibarko Udala, lanpostuen % 84,62k baitu ezarria derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna.** Hizkuntza-eskakizun horien betetze-maila altua da, gainera: % 93,51koa.
- **Pertzepzio zabalduena da herritarrei eskainitako aurrez aurreko harreran (zerbitzu hizkuntzan) eta Udal ekipamendu nagusietan euskarazko zerbitzua bermatuta dagoela:** Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ); Kiroldegian, Liburutegian Gaztelekuan, Ludotekan, ...
- **Lan-harremanetan, Elgoibarko Udalaren Erabilera Planaren arabera, % 65 ingurukoa da langileen arteko euskararen erabilera.** Lan-bileretan eta ordezkari politikoeekiko harremanetan, % 75 ingurukoa.

Zenbait sailetan edo aurkezpen eta ekitaldi publikoetan hobetu liteke

- **Aldeak antzematen dira udaleko sailen artean: Kultura, Euskara...euskaldunak; Hirigintza, Ogasuna, agian ez hain euskaldunak,** batez ere lan-hizkuntzari dagokionean (langileen arteko lan harremanak).
- **Aurkezpen eta ekitaldi publikoetan euskara hutsezko jardunak toki handiagoa izan dezakeela jaso da:**
 - Zenbait ekitaldi euskara hutsean egin daitezke publikoen arabera (haur eta gazteei zuzendutako komunikazioak eta ekintzak).
 - Euskaratik gaztelaniarako baliabide gehiago jar daitezke: aldebereko itzulpen zerbitzua, xuxurlariak...
- **Gaztelekuan eta Ludotekan antolatzen diren jardueretan euskararen erabilerak behera egin du azken urteetan.** Erabiltzaileek erdararako joera handiagoa dute.

17. taula. Udal zerbitzuetako ohiko hizkuntza-erabilera eta bilakaera, zerbitzuak antolatutako jardueretan

	Oro har, zein da ohiko hizkuntza-erabilera, erakundeak antolatutako jardueretan?	Zein izan da azken urteotako bilakaera, erakundearen jardueretako euskararen erabilerari dagokionez?
Udal Liburutegia	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	Berdin mantendu da
Udal Ludoteka	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	Behera egin du
Gaztelekua	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	Behera egin du
Musika Eskola	Dena edo ia dena euskaraz	Gora egin du
Udal Kirol Patronatua	Dena edo ia dena euskaraz	Berdin mantendu da
Eguneko Zentroa	Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	Berdin mantendu da


Iturria: Siadeco, 2025

6 Euskara merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan

Arduradunak euskaldunagoak dira langileak baino, eta langileak euskaldunagoak bezeroak baino

- **Elgoibarko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu profesionaletako establezimenduetan, oro har, arduradunak langileak baino euskaldunagoak dira. Eta bezeroen euskararen ezagutza-maila apalagoa da langileena baino.** Establezimenduetako informatzaileen artean pertzepzioa da langileen euskara-maila bezeroena baino gehiago hobetu dela.
- **1991n enplegatuen % 59,2 zen euskalduna. Lau puntu eta erdikoa izan da igoera, gaur egun euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak kontuan hartuta. Eta beste % 22,2k ulertu egiten dute.**

12. grafikoa. Establezimenduko arduradunaren euskara-gaitasuna (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

18. taula. Langileak guztira eta euskara-ezagutzaren arabera

	Kopuruak				% hor			
	Euskaraz ondo hitz egiteko gai diren langileak	Euskara ulertzen duten langileak (nekez hitz egin)	Euskara ulertu ere egiten ez duten langileak	Langile kopurua guztira	Euskaraz ondo hitz egiteko gai diren langileak	Euskara ulertzen duten langileak (nekez hitz egin)	Euskara ulertu ere egiten ez duten langileak	Langile kopurua guztira
Merkataritzan guztira	164	43	33	240	68,3	17,9	13,8	100,0
Ostalaritza	28	30	14	72	38,9	41,7	19,4	100,0
Bestelako zerbitzuak	52	12	7	71	73,2	16,9	9,9	100,0
Guztira	244	85	54	383	63,7	22,2	14,1	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

Merkataritza sektorea da euskaldunena eta ostalaritza erdaldunena erabilerari dagokionez

- **Ezagutzari dagokionez gaur egungo egoera orokorra hobea da zerbitzu-establezimenduetan, baina ñabardura handiak daude azpisektorearen arabera:** kontuan hartu behar da ostalaritzan euskaldunen portzentajea % 38,9ra jaisten dela — 1991tik hona egoerak okerrera egin du nabarmen: orduan taberna eta jatetxeetan, enplegatuen % 81 zen euskalduna—.
- **Merkataritzan eta, batez ere, zerbitzu profesioaletan euskararen ezagutza-maila ostalaritzan baino handiagoa da.** Langileak kontratatzerakoan ere neurri handiagoan hartzen da kontuan euskara. Ikastaroekiko interesa handiagoa da merkataritzan eta zerbitzu-establezimenduetan.
- **Ostalaritzan gehiago kostatzen zaie langile euskaldunak kontratatzea eta zailtasun handiagoak dituzte euskarazko zerbitzua eskaini ahal izateko** edo ordutegi osoan zehar bermatzeko
- **Ahozko ohiko hizkuntza-erabileran, merkataritzan ematen da erabilera-mailarik handiena,** ostalaritzan eta baita zerbitzu profesioaletan baino gehiago ere. Bilakaeraren pertzepzioa ere, positiboagoa dute merkataritza-establezimenduetan.
- **Ostalaritzako establezimendu gehien-gehienetan (% 94,7) uste dute euskararen erabilera-maila handiagoa izan daitekeela.** Arrazoiei dagokienez, langileen euskara-maila apala eta langileen erdaraz aritzeko joera nabarmentzen dira ostalaritzan.
- **Erakundeen sustapen-lanekiko hobetzeko edo areagotzeko tartea ikusten dutenak ere gehiago dira** merkataritzan: behar baino gutxiago egiten dela hautematen dutenen pisua handiagoa da.

19. taula. Langileak kontratatzerakoan euskarari ematen zaion garrantzia

	Txikizkako merkataritza		Ostalaritza		Bestelako zerbitzuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Garrantzi handia	23	38,3	2	10,5	12	35,3	37	32,7
Nahikoa garrantzi	22	36,7	11	57,9	16	47,1	49	43,4
Garrantzi gutxi	12	20,0	4	21,1	6	17,6	22	19,5
Garrantzirik ez	2	3,3	2	10,5	0	0,0	4	3,5
Ed/Ee	1	1,7	0	0,0	0	0,0	1	0,9
Guztira	60	100,0	19	100,0	34	100,0	113	100,0


Iturria: Siadeco, 2025

20. taula. Langile euskaldunak topatzearen zailtasun-maila (langileak kontratatzerakoan euskarari nolabaiteko garrantzia ematen diotenak bakarrik)

	Txikizkako merkataritza		Ostalaritza		Bestelako zerbitzuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Oso zaila	3	5,2	5	29,4	2	5,9	10	9,2
Nahiko zaila	14	24,1	10	58,8	5	14,7	29	26,6
Nahiko erraza	27	46,6	2	11,8	25	73,5	54	49,5
Oso erraza	6	10,3	0	0,0	0	0,0	6	5,5
Ed/Ee	8	13,8	0	0,0	2	5,9	10	9,2
Guztira	58	100,0	17	100,0	34	100,0	109	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

13. grafikoa. Establezimenduetako ohiko hizkuntza-erabilera, bezeroekiko ahozko elkarrizketetan (%).




Iturria: Siadeco, 2025

Ohikoa da lehen hitza euskaraz egiteko irizpidea finkatzea eta kanpoko errotuluak euskaraz edukitzea

- **Establezimenduen gehiengoak —hamarretik seik baino gehiagok— adierazi du langileei lehen hitza euskaraz egiteko irizpidea aplikatzeko eskatu zaiela, hau da, modu esplizituan eskatu zaie lehen hitza euskaraz egiteko. Inolako hizkuntza- irizpiderik eman ez dutenak establezimenduen laurdenak dira.**
- **Gaur egun, kanpoko errotulu nagusien erdia baino gehiago nagusiki euskaraz dago (% 54,1).** 1991n, establezimendu-izenen —kanpoko errotulu nagusiarekin aldera daiteke— laurdenak zeuden euskaraz, eta % 11 bietara.
- **Hizkuntza-paisaian euskararen presentzia sustatzeko asko aurreratu bada ere, gehiago egin beharra aipatzen da, oraindik ere hainbat kartel eta iragarki komertzialetan ez delako euskararen presentzia bermatzen.** Establezimenduen sare sozialetako erabileran ere euskararen presentzia murrizta omen da.

14. grafikoa. Langileei emandako irizpideak lehen hitzari dagokionez (%)



Iturria: Siadeco, 2025

21. taula. Euskararen erabilera idatzia, establezimenduaren tresna eta euskarri ezberdinetan (elementu hori dutenak eta erantzun dutenak)

	Euskaraz gehiago/erabat %	Bietan berdin %	Erdaraz gehiago/erabat %	Izen propioa/Marka %	Guztira %	N
Establezimenduaren kanpoko errotulu nagusia	54,1	5,5	8,3	32,1	100,0	109
Establezimenduaren barneko errotulazioa	27,9	41,2	22,1	8,8	100,0	68
Agiri formalak (fakturak, aurrekontuak...)	4,4	15,9	79,6	0,0	100,0	113
Posta elektroniko bidezko komunikazioak	9,1	35,5	55,5	0,0	100,0	110
Whatsapp/Telegram bidezko komunikazioak	8,5	45,3	46,2	0,0	100,0	106
Establezimenduaren webgunea	0,0	39,4	60,6	0,0	100,0	33
Establezimenduaren sare sozialak	15,0	46,7	38,3	0,0	100,0	60

Iturria: Siadeco, 2025


7

Euskara enpresetan

Enpresetako zuzendaritza kide eta langile gehienak dira euskaldunak, batez ere, enpresa handietan


- **Elgoibarko enpresetako zuzendaritza kideen eta langileen hiru laurdenak baino gehiago euskaraz ondo hitz egiteko gai dira.** Zenbat eta handiagoa izan enpresa, orduan eta handiagoa da euskararen ezagutza-maila.
 - Bilakaerari dagokionez ere, euskararen ezagutzak, enpresako langileen artean, gora egin duela uste dutenen ehunekoa 25 langiletik gorakoan artean nabarmentzen da.
 - 1991n lantegietako langileen erdia zen euskalduna, tailerrak, bulegoak eta zuzendaritzak kontuan hartuta. Tailerretan hamar puntu baxuagoa zen euskaldunen ehunekoa (% 40,5). Bilakaera handia izan da, alde horretatik.

15. grafikoa. Zuzendaritza-kideen kopurua eta zuzendaritza-kideak euskararen ezagutzaren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2025.

16. grafikoa. Langileen kopurua eta euskararen ezagutza langileen artean (%).




Iturria: Siadeco, 2025.

Arreta euskaraz emateko arazorik ez dute, baina egunerokoan, gehiago egiten dute erdaraz


- **Elgoibarko enpresa gehien-gehienetan arazorik gabe ematen dute hasierako arreta euskaraz** (aurrez aurre, telefonoz...): % 86,0. Arreta hori euskaraz emateko gai ez direnak % 4 dira. Baina, 10 langiletik beherako enpresetan, % 20.
- **Enpresan euskara baloratua izateko arrazoiei dagokienez, langileak eroso sentitzea da nagusia**, bezeroen eskaerei hobeto erantzutearen gainetik.
- **Hala ere, ia erdiek gehienbat gaztelaniaz egiten dute enpresako egunerokoan.** 10 langiletik beherako enpresetan, hamarretik zazpik.
 - 1991n % 18,7koa zen euskararen erabilera lantegietan —gaur egun, % 26koa gehienbat euskaraz egiten dutenen ehunekoa—.
 - Elgoibarko enpresen % 22tan uste dute, azken urteotan, euskararen ahozko erabilerak gora egin duela haien eguneroko jardunean. 25 langiletik gorako enpresetan, bostetik bik baino gehiagok.
- **Idatziz ere nabarmen gehiago erabiltzen da gaztelania:** Elgoibarko bost enpresatik hirutan barneko lan-harreman eta komunikazio idatzietan gehienbat gaztelania erabiltzen da. 10 langiletik beherakoetan, hamarretik zortzitan.
 - 1991n aipatzen zen erdararen nagusitasuna erabatekoa zela Elgoibarko lantegietako idazkietan. Ia ez zegoela euskara hutsezko idazkirik. Gaur egun, barneko eta kanpoko errotulazioetan euskarak presentzia handixeagoa du. Inprimaki eta fakturretan, ordea, eboluzioa txikia izan da.

17. grafikoa. Arrazoi ezberdinek enpresan duten garrantzia, euskara baloratua izan dadin (%)



Iturria: Siadeco, 2025

18. grafikoa. Enpresako ohiko hizkuntza-erabilera, ahoz (%).



Iturria: Siadeco, 2025

22. taula. Ohiko hizkuntza-erabilera enpresa barneko lan-harreman eta komunikazio idatzietan.

	JESN				Langile kopurua Elgoibarren						Guztira	
	Manufaktura industria		Gainerakoak (ibilgailuak, garraioa, jard. profesionalak, hezkuntza)		5-10 langile		11-25 langile		> 25 langile			
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Dena edo ia dena euskaraz	2	6,3	0	0,0	0	0,0	2	7,7	0	0,0	2	4,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	6,3	2	11,1	0	0,0	1	3,8	3	21,4	4	8,0
Euskaraz eta gaztelaniaz berdin	9	28,1	5	27,8	2	20,0	8	30,8	4	28,6	14	28,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	9	28,1	7	38,9	6	60,0	6	23,1	4	28,6	16	32,0
Dena edo ia dena gaztelaniaz	10	31,3	4	22,2	2	20,0	9	34,6	3	21,4	14	28,0
Ed/Ee	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	32	100,0	18	100,0	10	100,0	26	100,0	14	100,0	50	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

Euskara Planak diseinatzeko interes-maila apala dute, batez ere, enpresa txikiek


- **Elgoibarko enpresek Euskara Planak diseinatzeko duten interes-maila apala da:** hamarretik seirentzat txikia edo oso txikia. Interes-maila oso txikia dutenen pisua askoz ere handiagoa da 10 langile edo gutxiagoko enpresetan. Lau dira, gaur egun, Euskara Plana dutenak, denak handiak.
- **Enpresa txiki askorentzat ez dago lehentasunen artean.** Garrantzia ematen dioten artean, baliabide-falta aipatzen dute zailtasunen artean. Bai planaren diseinua egiteko, baita egikaritze eta jarraipen eraginkor batzuetarako ere. Ezezagutza handia ere badago, erakunde publikoetatik eskaintzen diren laguntzen inguruan.
- **Euskara Planak enpresetan eraginkorrak izateko eta ondo funtzionatzeko zuzendaritzaren inplikazio zuzena ezinbestekoa dela aipatzen da:** enpresetan erabakitze- eta aktibazio-prozesua bertikala dela: euskararen aldeko dinamika goitik bultzatutako Plan baten bidez baldin badator enpresa guztian nabariturako da, legitimatuta gelditzen delako.
- **Zuzendaritzetatik bultzatutako Euskara Planik edo euskararentzako zoru edo espazio ofizialik ez dutenen artean, batzuetan langileek beraiek egiten dituzte ahaleginak,** haien arteko eguneroko harremanetan euskara erabiltzeko, baita bezeroekiko edo hornitzaileekiko hartu-emanetan ere.

23. taula. Euskara Plan bat diseinatzeko enpresan duten interes maila

	JESN				Langile kopurua Elgoibarren						Guztira	
	Manufaktura industria		Gainerakoak (ibilgailuak, garraioa, jard. profesionalak, hezkuntza)		<= 10 langile		11-25 langile		> 25 langile			
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Handia	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Nahikoa	4	12,5	1	5,6	0	0,0	3	11,5	2	14,3	5	10,0
Txikia	11	34,4	7	38,9	4	40,0	12	46,2	2	14,3	18	36,0
Oso txikia edo batere ez	9	28,1	3	16,7	5	50,0	3	11,5	4	28,6	12	24,0
Ez dagokio. Plana badute edo lantzen ari dira	2	6,3	2	11,1	0	0,0	0	0,0	4	28,6	4	8,0
Ed/Ee	6	18,8	5	27,8	1	10,0	8	30,8	2	14,3	11	22,0
Guztira	32	100,0	18	100,0	10	100,0	26	100,0	14	100,0	50	100,0

Iturria: Siadeco, 2025

19. grafikoa. Euskararen sustapenarekin lotuta dauden egitasmo eta ekimen ezberdinak badituztenak eta ezagutzen dituztenak (%).



Iturria: Siadeco, 2025

8 Ondorioak eta orientabideak

Gaur egun euskarak Elgoibarren bizi duen egoeraren azterketa sakona egitea izan da ikerketa honen helburu nagusia. Nolanahi ere, 1991n Siadecok berak Elgoibarren pareko ikerketa bat egin zuela baliatuz, epe luzeko alderaketa bat egiteko aukera ere ematen du. Bi ikuspegi horiek kontuan hartuz, ondorio nagusi batzuk bildu ditugu atal honetan, aurrera begirako orientabide batzuekin batera.

Hasteko, 1990eko hamarkadaren hasierako egoera eta gaur egungoa ikuspegi orokor batetik alderatuz, aurrerapenik handienak **eremu formalean, egituratuan eta, batez ere, instituzionalean** lortu direla azpimarra daiteke.

- ; Urrats sendoenak udalean, udal zerbitzuetan, beste zerbitzu publikoetan —osasun zentroa etab.— eta kultur eskaintzan eman dira. Lan-hizkuntzari dagokionez hobetzeko tarte badago ere, zerbitzu-hizkuntza gisa, arretan eta herritarrei begira, eboluzioa nabarmena izan da.
- ; Irakaskuntzan ere bai, D ereduaren hedapenarekin, eta euskararen ulermen-maila orokortzearekin, batez ere. Nolanahi ere, ikastetxeen arteko tentsio-egoera suspertu egin da azken urteotako migrazio-fluxuak hezkuntza-eremuan izaten ari diren eraginaren ondorioz. Horrez gain, zailtasun berriak agertu dira irakasleen hizkuntza-mailan edota hezkuntza sektoreko eragileen kontzientziazioan sumatutako atzerakadaren eskutik.
- ; Lan-munduan eta elkarteetan egoera hobea da —enpresa handietan eta kultura arloko elkarteetan, batez ere— Aurrerapausoak eman dira, euskararen gaia jorratu egin da eta ahaleginak egin dira, baina hobetzeko-tartea handia da oraindik: enpresa txikiagoetan, kiroleko eta arlo sozialeko elkarteetan etab.
- ; Euskalduntze-alfabetatzean, tentsio-egoera gainditzea lortu da, neurri batean. Eta ikasle-profil berriak dituzte: etorri berriak, gazteak etab. Baina ikasleak erakartzeko eta hastapen-mailatik harago ikasketa-prozesuan mantentzeko zailtasun handiak dituzte oraindik. Gaur egungo eskarira —ikasleen eta ikasle potentzialen errealitateetara eta beharretara— egokitu beharra dute.

Azken finean, euskara formalizatu eta instituzionalizatu egin dela esan daiteke, eta egitura hierarkikoetan gora egin duela, zuzendaritzetara eta erabakiguneetara iritsiz. Horrek baditu bere alde onak eta ukatu ezin diren aurrerabideak, 1990eko egoerarekin alderatuta: herritar xumeen eta etxeko sukaldean soilik hitz egiten den hizkuntza izateari utzi dio. Marko legal bat dauka, eta, ulermen- edo gutxieneko erabilera-mailan, behintzat, izugarri zabaldu da. Gainera, gizartean gora egiteko baliabide gisa hauteman daiteke —lanpostu hobea lortzeko etab.—

Baina, bilakaera horrek, baditu alde negatiboak ere: baliteke euskarak oinarri sozialarekiko lotura galdu izana, eta komunikazio-tresna gisa, desnaturalizatu egin izana. Txanponaren beste aldea da, hain zuzen ere, eremu **informalean, ez egituratuan eta ez instituzionalean**, ez dela aurrerapauso esanguratsurik lortu, ahaleginak egin diren arren: familia bidezko transmisioan, lagunartean, aisialdian... Kasuan kasu, gehienez ere egoerari eutsi egin zaiola esan daiteke. Alabaina, aldaketa kualitatibo aipagarriak gertatu dira:

- ; Ez da euskararekiko kontzientziazioaren, euskararen erabilera-ohituren, eta bertako euskalki-aldaeraren eta hizkera informalearen transmisio eraginkorrik gertatu.
- ; Euskara hutsaren transmisio eta erabilerak behera egin du, eta gora bi hizkuntzetan aritzeko joerak. Edo seme-alabei bai, baina gurasoen artean euskaraz ez egitekoak.
- ; 1990eko hamarkadan euskararen erabilerak Elgoibarko kaleetan izan zuen goraldia eten egin da. Eta ohiko bihurtu da bi hizkuntzen erabilera tartekatzea—normalean, euskararen presentzia apalagoarekin—.
- ; Haur eta nerabeen artean erabilerak behera egin duela hautematen da: ikastetxeetako jolas-garaietan, ikastetxeen atarian, kuadrillako harremanetan... Baina, oraindik ere, gehien erabiltzen dutenak dira.
- ; Euskararen normalizazioa ez dago herritarren multzo adierazgarri baten lehentasunen artean. Edo, aldeko jarrerak izanagatik ere, ez du ematen norberaren ohiturak eta joerak aldatzeko ahaleginak egiteko prestutasun handia dagoenik.

Elgoibarko herritarrak jabetuta daude eremu informal horren garrantziaz. Izan ere, aurrera begirako lehentasunak finkatzerakoan, lagunartea eta kuadrillak, ikastetxeetako gelaz kanpoko jarduna eta Elgoibarko familiak nabarmendu dituzte inkestan. Ez dira esku hartzeko eremu errazak, instituzionalizatuta eta egituratuta ez dauden heinean. Baina, denborak eta datuek erakutsi dute eragin handikoak direla, hizkuntzaren bizi-indarrari begira.

Ezin ahaztu, dena den, erronka berriak eta handiak iritsi direla, migrazio-fluxuen, kontsumo digitalaren, inplikazio soziala eta gizarte-mugimenduen ahultzearen eta globalizazioen eraginarekin. Estrategia berriak beharko dira horien guztien inpaktu negatiboak mugatu eta, ahal den neurrian, euskararen normalizazioaren aldeko izan daitezkeen faktoreak indartzeko.



Gure ikuspuntutik, Elgoibarko euskararen biziberritze-prozesuak hiru estrategia-mota uztartu beharko ditu datozen urteetan, modu integralean. Eta, betiere, herriaren idiosinkrasiarekin eta berezitasunekin oso lotuta:

- ; Informazio- eta motibazio-estrategiak, euskararekiko motibazio afektiboaren eta efektiboaren arteko oreka lortzeko, elgoibartarrek hizkuntzarekiko harreman aktiboagoa eta praktikoagoa izan dezaten bilatuz. Izan ere, euskara balio handiko eta babestu beharreko ondarea da, nortasun kolektiboaren funtsezko osagaia; baina, batez ere, komunikazio-kode eraginkor eta erabilgarria izan beharko litzateke.
- ; Transmisio- eta prestakuntza-estrategiak, euskararen etengabeko ikaskuntza-sisteman progresibitate egokia bermatzeko —gaitasun linguistikoak behar bezala garatuz: ulertzea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea—. Euskararen transmisio naturalean eta kulturean egon litezkeen hutsune edo etenak konpontzea helburu duten estrategiez ari gara, azken finean, honako gaietan arreta jarritz:
 - Progresibitatea motibazioaren, ezagutzaren eta erabileraren arteko elkarrekintzan (ahozkoa zein idatzizkoa, formala eta informala).
 - Ikasketa- eta alfabetatze-prozesua sinplifikatzea, eguneroko erabilera praktiko eta erabilgarriarekin lotuz, ikasleen komunikazio-interesak ahalik eta gehien asebetetzeko.
 - Aitortza ikaskuntzan, aitortza efektiboa eta, batez ere, afektibo-emozionala; ekimena, sormena, asimilazioa eta autonomia sustatuz, besteak beste.
- ; Euskararen erabilera komunikatiboa² sustatzeko estrategiak, elgoibartarren eguneroko bizitzako eremu eta testuinguru ezberdinetan (familia, eguneroko zereginak, aisialdia...). Bai aurrez aurreko harremanetan eta baita birtualetan ere, harreman digitaletan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baitira eguneroko bizitzan.

² Hizkuntza baten erabilera ez komunikatiboa hizkuntza-erabilera da, baina ez da komunikazioa. Eta hizkuntza baten funtzio nagusia, kode bat den heinean, komunikatzea da. Hori horrela, bere komunikazio-funtzioa galtzen duen kode batek desagertzeko bidea hartuko du (ez baita beharrezkoa komunikatzeko).



Planteamendu estrategiko horren oinarriko printzipio edo jarraibideei dagokienez, garrantzi handikoak dira:

- ; Elgoibarko herritarrek protagonismoa berreskuratzea udalerriko euskararen biziberritze-prozesuan. Izan ere, herritarrak dira hizkuntzaren beharra izan behar dutenak komunikatzeko. Zentzu horretan, funtsezkoa da biziberritze-prozesuak hartu duen norabidea (herrikoitik instituzionalera, errealetik legalera eta naturaletik formalera) iraultzea edo orekatzea behintzat.
- ; Funtzio-zeregin espezifikoak definitu eta herrian jarduten duten euskararen biziberritze-eragileen artean banatu; eragile publikoak (Udaleko euskara zerbitzua...) baita pribatuak edo sozialak ere (euskaltegiak, elkarteak, enpresak...etab.).
- ; Biziberritze-ekintzen promozio-zarata mugatzea, euskararen sustapenaren sustapena bera helburu bihurtzen baita askotan. Zentzu horretan, sentsazioan oinarritzen diren motibazio-sentsibilizazio estrategiak saihestu behar dira, izan ere, ez badute kontzientzia-hartzea eragiten, intsentsibilizazio bihurtzeko arriskua dute.
- ; Modu objektibo eta jarraian ebaluatzea euskararen biziberritze-ekintzak. Horretarako, adierazle-bateria egokia eduki behar da, bideratutako baliabideak eta euskararen motibazio, ezagutza (komunikazio-gaitasuna) eta erabilera arloko emaitzak alderatzea ahalbidetuko duena.